

2024ko apirileko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak

GJH-ETAN OINARRITUTA
EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA
BULTZATZEKO
POLITIKA PUBLIKOAK



REAS
EUSKADI
ekonomia alternatibo
eta solidarioa

Testuinguru aldakor batean bizi gara, COVID-19aren pandemiak izan zituen ondorio ekonomiko larriak arintzeko asmoz administrazio publikoek bultzatutako berreskuratze- eta eraldatze-planen gauzapenean murgilduta. Trantsizio teknologiko eta digitalean, trantsizio energetiko eta klimatikoan, trantsizio sozial eta sanitarioan...

Iritsi ziren, azkenean, gure herrian trantsizio horiek egiteko Europako funtsak. Baina gure erakundeek errezeta zaharrak erabiltzen jarraitzen dute askotan, ikuspegi berriekin koloreztatuta bada ere, eta kezkatuta gaude, badirudielako aspaldiko urteetatik borrokatzen ari garen krisi ekonomiko, ekologiko, sozial eta zainketena eragin duen sistema betikotzen ari direla horrela, konturatu ere egin gabe.

Behar-beharrezkoa den arren, oraindik asko falta da politikak birbideratzen hasi eta, horrela, gizarte-, ingurumen- eta kultura-esparru ugaritan egin beharreko trantsizioak identifikatu, antolatu eta sustatu ahal izateko. Trantsizio horien bidez, gaur egun orokortuta dauden finantzaketa-, ekoizpen-, merkaturatze- eta kontsumo-egitura kapitalistak zinez eraldatu beharko dira.

Horregatik, estrategiak birpentsatu eta norabidea aldatzea proposatzen dugu, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzeko erronka handiarekin lerrokatuta eta eraldaketa-ahalmen handiagorekin. Estrategia horiek gidatzen dute jada Ekonomia Sozial eta Solidarioko (ESS) erakundeen norabidea, eta erakunde horien proposamenek eta esperientziek hamarkadak daramatzate herritarren beharrak asetzen, justizia sozialeko eta jasangarritasuneko irizpideen arabera eta ekonomia bizitzaren, pertsonen eta planetaren zerbitzura jartzeko asmoz.

2024ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak direla eta, garapen-eredu alternatibo horiek bultzatuko dituzten politika publikoak ezartzea proposatu nahi dugu, ezinbesteko trantsizio ekosozialarekin lerrokatuta eta GJHak betetzearren.

*REAS Euskadik (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak) alternatiba praktikoak garatzen ditu **135** enpresa eta erakunde bazkide eta laguntzaile baino gehiagoren bidez. Enpresa eta erakunde horiek **165** milioi euro inguruko diru-sarrerak dituzte guztira, eta **3.700** langile baino gehiago eta **26.000** boluntario eta bazkide, finantza-, energia-, elikagai- edo kultura-kontsumoko kooperatiba-proiektuetan.*

GURE EGITURAK BENETAN ERALDATZEKO ESTRATEGIAK

1 FIN DE LA POBREZA

4 EDUCACIÓN DE CALIDAD

10 REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES

Pertsona guztien giza eskubideak eta eskubide sozial eta ekonomikoak bermatzea, eta, beraz, pertsona guztiak duintasunez bizi ahal izateko gizarte-babeseko oinarritzko sistemak bermatzekotan beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta tresnak lehenestea, barne hartuta osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak eta gizarteratzea.

Zaintzen gizarte-antolaketa berri bat bultzatzea, pertsona guztien zaintzarako eskubidea bermatzeko eta duintasunez garatu ahal izateko, gizarte osoaren (erakunde publikoak, gizarte-eragileak, komunitatea eta etxeokak) erantzukizunpean.

3 SALUD Y BIENESTAR

5 IGUALDAD DE GÉNERO

6 AGUA LIMPIA Y SANEAMIENTO

7 ENERGÍA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE

11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES

12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES

13 ACCIÓN POR EL CLIMA

14 VIDA SUBMARINA

15 VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES

Trantsizio ekosozialerako estrategia bat garatzea, besteak beste arlo hauetan: energia-efizientzia, mugikortasun jasangarria, hondakinen kudeaketa ekologikoa, baliabideen kontsumoa mugatzea, uraren kudeaketa publiko eta efizientea, biodibertsitatearen defentsa edo lurraldearen kudeaketa jasangarria.

Produkzio-sisteman aldaketak bultzatzea, jarduera ororen erdigunean bizitza jarrita: onura publikoko eta guztien onerako ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea, ekonomia zuzena eta zirkularra sustatzea, erantzunkidetasuna produkzio- eta ugalketa-lanetan eta abar.

5 IGUALDAD DE GÉNERO

8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES

1 FIN DE LA POBREZA

2 HAMBRE CERO

7 ENERGÍA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE

10 REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES

Tokiko ekonomia-kate jasangarriak elikatzeke eta baloratzeko estrategia bat sustatzea: tokiko ekoizpenaren babesa, finantzaketa etiko eta arduratsua, merkaturatze-zirkuitu laburrak, tokiko merkataritza eta kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzailea. Horrekin, subiranotasuna sustatzen da hainbat arlotan, hala nola energia-, elikadura-, teknologia- eta kultura-gaietan. Baina hori ez da oztopo, kontrakoa baizik, behar-beharrezkoa den nazioarteko elkartasuna eta lankidetzaren bultzatzeko planetako gainerako komunitateekin.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren garapenaren aldeko apustu estrategikoa egitea, eta, bereziki, gizarte-ekimenak guztien ongiaren zerbitzura bultzatutako jardura ekonomikoak sustatzea, hala nola banka etikoa; energia berriztagarriak sortzeko, merkaturatzeko eta kontsumitzeko kooperatibak; agroekologia eta elikadura-burujabetza sustatzeko elkarre-ekimenak; bidezko merkataritza; hondakinen kudeaketa jasangarria; esku-hartze soziala eta garapen komunitarioa; teknologia irekiak; komunikazio librea, eta abar.

8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN E INFRAESTRUCTURA

11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES

16 PAZ, JUSTICIA E INSTITUCIONES SÓLIDAS

17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS

Gobernantza-eredu ireki, partekatu, gogoetatsu eta erantzunkideago baterantz urratsak egitea, demokrazian sakondu eta gizarte honen erronka konplexuei elkarrekin heltzeko, lankidetzaren publiko-soziala areagotuz eta ikuspegi integral batetik (administrazio publikoa / gizartea / enpresa / ikerketa-sistema / lurraldea).

GJH-ETAN OINARRITUTA ESS-A BULTZATZEKO POLITIKA PUBLIKOAK



ARDATZA:
PERTSONAK



Zaintzarako eskubidea eskubide unibertsal, multidimentsional, kolektibo eta berezi gisa aitortzeko bidean aurrera egitea, eta eskubide horren hornidura publiko eta eskuragarria bermatzea ikuspegi integral batetik, kontzertazio publiko-pribatuaren logikaren ordeztu kontzertazio publiko-sozial-komunitarioaren logika ezarritu.

- Zainketa-zerbitzuen izaera publikoa indartzea eta hurbileko osasun-, gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak sendotzea.
- Erantzukizun publikoko zerbitzuak irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta enpresek bakarrik eman ditzaten bultzatzea, itun sozial baten bidez eta berrikuntza publiko-soziala bultzatuz.
- Zainketa-zerbitzuen kudeaketa kooperatibo eta komunitarioa sustatzea.
- Zainketen sektoreko lan-baldintzak duinak izan daitezen sustatzea.

Enpresa-kultura eta -praktika alda dadin bultzatzea, zainketa-lanen berrantolaketa soziala bultzatzeko ekitatez.

Babes sozialeko sistema publikoak indartzea.

Elikadura osasungarri eta jasangarriko politika bat ezartzea zerbitzu publiko guztietan: eskolak, egoitzak, 0-2 urteko gelak, bizikidetza-etxebizitzak eta abar.

Enplegu inklusiboa sustatzea, gizarteratze- eta laneratze-programak bultzatuz, eskusio-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzat edo gizartean eta/edo lanean nolana hiko diskriminazioa jasaten duten pertsonentzat, batez ere Ekonomia Sozial eta Solidarioko ekimenen bidez.

Sakon eta epe luzera hitz egiteko gune bat irekitzea mugimendu feministarekin eta gizarte zibil antolatuekin, Zainketen aldeko Euskal Itunaren proposamenari buruz jarduteko, eta tokiko, eskualdeko eta auzoko mahaiak antolatzea, proposamen horiek mamitzeako.

Merkatua erreserbatzea, zainketa-zerbitzuen kontratazio publikoko prozesuetan klausula sozialak eta lan-klausulak sartzea eta zainketen sektorean ekonomia solidarioko enpresak sortzen laguntzea.

Kooperatiba mistoak, lan elkartuko kooperatibak eta zerbitzu publikoetako eta erantzukizun publikoko zerbitzuetako kooperatibak babestea eta sustatzea.

Zainketen antolaketa komunitarioan elkarri laguntzeko sareak sor daitezen sustatzea.

Kontziliazio erantzunkiderako planak eta neurriak sustatzea erakunde eta enpresa publiko eta pribatuetan.

Etxeko langileen eta zainzaile profesionalen erakundeetarako sentsibilizazio-, arreta-, orientazio-, prestakuntza- eta laguntza-programak eta baliabide publiko eta komunitarioak, bai eta zainzaile informalen eta familiakoen sektoreari laguntzekoak ere.



ARDATZA: PERTSONAK



Bidezko merkataritzako ekimenak bultzatzea, hori sustatzen duten erakundeen lanari babesa emanez eta administrazio publikoek, erakunde pribatuek eta herritarrek oro har horien produktuak kontsumitzea sustatuz.

Ekonomia-modu berriak bultzatzea/sustatzea komunitateari eta herritarren parte-hartzeari lotuta: irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimena sustatzea, denbora-bankuak, trukea, tokiko diruak, lankidetzak, *crowdfunding* soziala eta abar.

Kultura-eskubideen esparruan aurrera egitea, kontuan hartuta kulturak gizarte-harremanak egituratu eta kohesionatzen dituela, aniztasunari balioa ematen diola eta subjektibotasun eta erreferente sinboliko berriak sortzen dituela, erronkei eta gatazkei aurre egin eta beste etorkizun posible batzuk imajinatzeko. Kulturaren bi ikuspegietatik egin behar da hori: sortzeko eskubidearen ikuspegitik (artistaren estatutuaren garapena, kode etikoak, berrikuntzarako laguntza...) eta kultura eskura izateko eta hartaz gozatzeko eskubidearen ikuspegitik (arteak eta kultura hezkuntza formalean eta ez-formalean sartzea, adierazpen kultural ez-konbentzionaletarako kanalak eta zirkuituak zabaltzea...).

Erantzunkidetasunerako, berdintasunerako eta bizitzaren jasangarritasunerako bizikidetzak diseinatu eta gara daitezkeen bultzatzea, eta diagnostikoak eta ekintza-planak egitea bizitza sozialaren eta ekonomikoaren eremu guztietan.

Etxebizitza-eskubidea bermatzeko eta etxebizitza komunitarioagoak eta jasangarriagoak bultzatzeko esparru politiko eta arauzkoa bultzatzea (etxebizitzaren lege bat egitea, errenta sozialeko etxe-parkea birgaitzea eta mantentzea, etxegabetzeak prebenitzea eta geldiaraztea...).

Prestakuntza- eta enplegu-programak eta hezkuntza-laguntzako ibilbideak.

Pobrezia energetikoa detektatzea eta murriztea familiei laguntza ekonomikoa eta prestakuntzako emateko programen bidez.

Eskubide Kulturei buruzko Herritar Foroa abian jartzea, politika kulturalak elkarrekin definitzeko eta lankidetzak publiko-sozial-komunitarioa sustatzeko.

Kultura-berrikuntzarako espazio eta programetarako (sorkuntza-laborategiak, esperimendazio-egoitzak...) laguntza egituratua.

Lurraldearen eremu jakin batzuen gentrifikazio- eta turistifikazio-prozesuak eragozten dituzten erregulazioak, batez ere auzorik eta komunitaterik behartsuenetan.

Etxebizitza-politika sozialak sustatzea: errenta soziala, etxebizitza-parke inklusiboa eta abar.

Erabilera lagatzeko etxebizitza kooperatiboetarako laguntza espezifikoak eta azpiegiturak.



ARDATZA: PLANETA



Lurraldearen zaintza eta babesa sustatzea, lurzorua erabiltzeko eredu jasangarriak eta ez-espekulatuzaileak oinarri dituzten tresnak erabiliz, ekosistemak babestuz eta abar.

Tokiko nekazaritza-jardueraren berreskurapena bultzatzea, landa-eremuan bizi eta lan egiteko pizgarriak emanez, gazteentzako prestakuntza-planak eginez, sektorean ekonomia sozial eta solidarioko jarduerak sustatuz eta abar.

Tokiko produktuak eta produktu ekologikoak kontsumi daitezen sustatzea elikadura-burujabetzaren irizpideei jarraituz, produktu horien banaketa eta merkaturatzea sustatzeko eta errazteko eta herritarrei eskuragarriago jartzeko tresnen bidez.

Uraren kultura berriaren paradigma sustatzea baliabide horren kudeaketa publikorako oinarri gisa, jasangarritasunaren eta guztien ona babesteko irizpideetatik, eta uraren kudeaketa pribatizatzeke eta/edo erabilera espekulatiboa egiteko edozein prozesu geldiaraztea.

Energia-ereduaren aldaketa sustatzea, energia oinarrizko ondasuna izan dadin eta pertsona guztien eskura egon dadin, jasangarritasun-irizpideen arabera betiere.

Energia berriztagarriaren autokontsumo indibidual eta kolektiboa bultzatzea (prozedurak erraztea, izapideak bizkortzea...).

Pobrezia energetikoa desagerrarazteko estrategia eraginkor bat ezartzea, erdigunean pertsonak eta gizarte-egoerak jarrita, benetan, osotasunean eta arintasunez.

Hazien eta lurren bankuak sortzea, proiektu agroekologikoen biziraupena eta landa-eremuko jarduera ekonomikoaren susperraldia bermatzeko.

Tokiko elikagaiak eta elikagai ekologikoak eraldatzeko lantegiak eta azpiegiturak instalatzeko laguntzak.

Supermerkatu kooperatiboak, elkarteak eta kontsumo-taldeak sortzeko azpiegiturak, irizpide agroekologikoen eta elikadura-burujabetzako irizpideen arabera funtzionatzen dutenak.

Kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzailea sustatzeko plan espezifikoak egitea eta garatzea, eta Ekonomia Solidarioaren Merkatu Soziala bultzatzea.

Akuiferoen eta lehorreko ekosistemen kutsadura zigortzea. Lurraldean energia-auditoretza bat bultzatzea, etxeko, industriako eta arlo publikoko kontsumoa arrazionalizatzeko plan bat garatzeko.

Energia-komunitateak sustatzea Ekonomia Sozial eta Solidarioko kooperatiba gisa, eta baliabidez hornitzea.



ARDATZA: PLANETA

6 AGUA LIMPIA
Y SANEAMIENTO



12 PRODUCCIÓN
Y CONSUMO
RESPONSABLES



13 ACCIÓN
POR EL CLIMA



14 VIDA
SUBMARINA



15 VIDA
DE ECOSISTEMAS
TERRESTRES



Merkaturatze-zirkuitu laburretatik datozen produktuak sustatzea.

Hondakinak kudeatzeko politiken testuinguruan birziklatzeko eta berrerabiltzeko jarduerak sustatzea, jarduera horiek garatuko dituzten ESSko enpresak sortu eta manten daitezen sustatzea eta, horrela, enplegu inklusiboa sortzea.

Berreskuratutako eta bigarren eskuko produktuak konpontzeko eta saltzeko jarduerak sustatzea.

Kontsumo kritikoa, kontzientea eta eraldatzailea sustatzeko plan espezifikoak egitea eta garatzea.

Hiri-espazio publikoak onura publikoko eremutzat jo daitezen bultzatzea, Ekonomia Sozial eta Solidarioko kooperatiba-figuraren pean sortutako energia-komunitateei lagatzeko.

Ekonomia Sozial eta Solidarioko proiektuei energia ekoizteko baliabideak ematea, energia berriztagarriak instalatuz, energia-eraginkortasuneko proiektuak eginez eta abar.

Berrerabiltzea sustatzeko laguntza-lerroak.

Komunitateko konpostatze-programak.



ARDATZA: BAKEA ETA OPAROTASUNA. ALIANTZAK

7 ENERGÍA ASEQUIBLE
Y NO CONTAMINANTE



8 TRABAJO DECENTE
Y CRECIMIENTO
ECONÓMICO



9 INDUSTRIA,
INNOVACIÓN E
INFRAESTRUCTURA



10 REDUCCIÓN DE LAS
DESIGUALDADES



11 CIUDADES Y
COMUNIDADES
SOSTENIBLES



16 PAZ, JUSTICIA
E INSTITUCIONES
SÓLIDAS



17 ALIANZAS PARA
LOGRAR
LOS OBJETIVOS



Ekonomia Sozial eta Solidarioa ordezkaten duten erakundeen parte-hartzea bultzatzea ekonomia, enplegua eta gizarte-politikak sustatzeko erakundeen esparruan (elkarrizketa sozialerako mahaia, aholku-kontseiluak, administrazio-kontseiluak organo publikoetan —adibidez, Lanbide— eta abar).

Gehikortasunaren irizpidean oinarritutako zerga-politika garatzea, aberastasuna birbanatzen laguntzeko. Zergak handitzea, bereziki kapital-errentei.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eremuan ekintzaitelza sustatzea, ibilbide, programa eta tresna bereziak sortuz eta publiko espezifikoak aintzat hartuz (emakumeak, etorkinak, gazteak eta abar).

Neurri espezifikoak garatzea beren ezaugarriengatik eta orientazioagatik guztien onerako diren gizarte-ekimeneko eta onura publikoko kooperatibak sustatzeko.

Sektore estrategikoetako (energia, mugikortasuna, tokiko elikadura eta elikadura ekologikoa...) kooperatiba mistoak identifikatzea eta horien garapena bultzatzea, erakunde publikoen, Ekonomia Sozial eta Solidarioako enpresen eta herritarren parte-hartzearekin.

Finantzaketa alternatiboko eta gizarte-ekimeneko finantzaketako tresnak garatzen laguntzea: banka etikoa, hurbileko parabanku-jarduerak eta abar.

Politika publikoak elkarrekin sortzeko prozesuak bultzatzea.

Merkataritzako eta kapitaleko enpresak ESSko enpresa bihurtzeko laguntzak.

Ekonomia Sozial eta Solidarioako merkatuen zerbitzura jarritako ekipamenduak.

Langileek enpresaren jabetzan eta kudeaketan parte hartzeko eredu berritzaileak sustatzea.

Guztien ongia, lankidetzako ekonomia eta lizentziarik eta gatazkarik gabeko teknologiak erabiltzen laguntzen duten enpresetarako neurri positiboak.

Merkatu Erreserbaren betebeharra betetzea.

Lan-baldintzak eta lan duinari buruzko konbentzioak errespetatzeko klausula sozialak.

Erantzukizun publikoko zerbitzuak ematea ESSaren formatik.

Pobrezia murrizteko eta herrialde guztiak nazioarteko sistema politiko eta ekonomikoetan sartzeko nazioarteko elkartasun-programak.



ARDATZA: BAKEA ETA OPAROTASUNA. ALIANTZAK

7 ENERGÍA ASEQUIBLE
Y NO CONTAMINANTE



8 TRABAJO DECENTE
Y CRECIMIENTO
ECONÓMICO



9 INDUSTRIA,
INNOVACIÓN E
INFRAESTRUCTURA



10 REDUCCIÓN DE LAS
DESIGUALDADES



11 CIUDADES Y
COMUNIDADES
SOSTENIBLES



16 PAZ, JUSTICIA
E INSTITUCIONES
SÓLIDAS



17 ALIANZAS PARA
LOGRAR
LOS OBJETIVOS



Elkarte- eta enpresa-ereduaren trantsizioa bultzatzea bizigarriak diren eta ikuspegi ez-patriarkaletatik eraiki diren erakundeetarantz, erdigunean jarrita pertsonak, haien ongizatea eta bizitzaren zainketa.

Erosketa Publiko Arduratsua bultzatzea, kontratazio-prozesuetan gizarte- eta ingurumen-irizpideei jarraituz, klausula sozialak txertatuz eta merkatua erreserbatuz, eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko enpresei sarbidea erraztuz.

Auditoretza Sozialeko prozesua instituzionalki kontabilizatzea eta sustatzea, Ekonomia Sozial eta Solidarioko produktuen eta zerbitzuen berme gisa.

Parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak eta gizarte-ongizateko politiketara bideratutakoak.

Erakundeen eraldaketa feminista eta elkarte- eta enpresa-kulturaren eta -praktikaren eraldaketa sustatzeko laguntzak, arauak eta pizgarriak.

